



2.8 FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresa guztietan behar dira jarduera desberdinak, funtsezkoak eta baina horrekin gure funtsezko jarduera zein den zehaztu beharra daukagu. Jarduera mota desberdin asko daudela ikus dezakegu, gure helburua gure bezeroentzat ahal den egonaldi honena ematea izango da.

Alahere lehenengoa, produkzioarenkin loturikoak osatzen dute, gure kasuan ez dugu produkzio berezirik izango, izan ere, janari esparrua Gaintzako tabernak eramango digu, dieta orekatua eta abar izanik, noski.

Bigarren jarduera arazoen konponketa eta umeei jarduera desberdinak prestatzea izango da; gure udalekuetako puntu garrantzitsu bat udalekuetako arazoak ahalik eta len konpontzea izango da. Horretarako udalekuetako monitore eta langileek egoera desberdinei aurre egiteko trebakuntza jasoko dute, hau da, monitore izateko tituloa beharko dute, horrela, udalekuetako umeen segurtasuna bermatuko dugu. Bestalde arazo hauek ahalik eta azkarren konpontzeko komunikazio azkar bat behar da; orduan, gure udalekuetan lan egiten duten pertsonen hau lortzea eskatuko diegu eta horretarako konfiantza eta talde lana beharrezkoa dela esango diegu.

Hirugarren funtsezko jarduera umeen jardueren antolaketa izango da. Gure helburua gaur egungo umeek oraingo sozietatea alde batera uztea eta naturarekin eta baserriko tradizioekin konektatuak sentitzea da. Hau lortzeko beste baserriak bixitatzera joango gara eta horko langileek nola egiten duten lan ikusiko dugu, bestalde, umeek baserriko lan batzuk egingo dituzte naturarekin konektatuak sentitzea; hauek, letxugak landatzea eta horrelako gauzak izango dira. Jarduera pertsonalizatu batzuk ere egingo ditugu, adinaren eta gustuen arabera horrela adin tarte guztikoek aukera ona dute denbora on bat pasatzeko.

Laugarren funtsezko jarduera segurtasun eta kontrol jarduerak izango dira. Segurtasun plan aldetik ume guztiak seguru sentitzea izango da gure helburua, hau lortzeko, haurretik aipatu dugun bezala monitoreak edukiko ditugu hau bermatzeko eta arau batzuk edukiko ditugu. Kontrol jardueren aldetik, monitoreak ez die umeei begia kenduko, hau da, umeak gure kontrolpean izango ditugu.



Azkeneko funtsezko jarduera sustapen eta harremanena izango da. jarduera hau beharrezko ikusten dugu udalekuak baiabideak lortzeko, hau da, harremanak edukitzea inguruko baserriekin umeak hauek bixitatzea joan ditzan. Azkenik, komunikazioa gurasoekin beharrezkoa da gurasoek uneoro jakin dezaten seme-alabak nola dauden eta zer egiten ari diren, horretarako umeei mugikorra utziko diegu gauero beraien gurasoie deitzeko.